



JARDUEREN OROITIDAZKIA **2025**



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia



Lizentziaren laburpena: <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/>

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/legalcode.en>

© Lehiaren Euskal Agintaritzza, 2026

Argitaratzailea: Lehiaren Euskal Agintaritzza

Lege-gordailua: BI-864-2021

JARDUEREN OROITIDAZKIA

2025

AURKIBIDEA

I. SARRERA	6
1. Presidentearen agurra	7
2. 2025 Ekintza Plana	8
II. LEHIAREN SUSTAPENA	9
1. Arau-txostenak	11
1.1. Nekazaritzako ustiategiei aholku emateko erakundeei buruzko dekretu-proiektua (LEA/AVC 873-ARAU 2025)	11
1.2. Euskadiko Turismo Mahaiaren dekretu-proiektua (LEA/AVC 848-ARAU 2025)	13
1.3. Zepak balorizatzeko dekretu-proiektua (LEA/AVC 742-ARAU 2024)	14
1.4. Interneteko domeinuei buruzko agindu-proiektua (LEA/AVC 872-ARAU 2025)	14
1.5. Bilboko HAPOren aldaketa, ostatu-jarduera turistikoa (LEA/AVC 800-ARAU 2025)	15
1.6. Guardiako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren aldaketa (LEA/AVC 818-ARAU 2025)	16
1.7. Bizkaiko Medikuen Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 824-ARAU 2025)	17
1.8. Arabako Industria Ingeniaritzako Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 836-ARAU 2025)	17
1.9. Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 877-ARAU 2025)	19
1.10. Euskadiko Biologoek Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 876-ARAU 2025)	19
1.11. Arabako Graduatu Sozialen Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 809-ARAU 2025)	20
1.12. Etxebizitzaren, lurzorua eta hirigintzaren arloko premiazko neurriei buruzko lege-proposamena (LEA/AVC 881-ARAU 2025)	20
2. Sektore publikoari egindako txostenak eta gomendioak	21
2.1. Nautika- eta kirol-jardueren emakida Laidan eta Lagan (LEA/AVC 797-SUST 2025)	21
2.2. Bilboko aireportuko taxien aldi baterako baimenak (LEA/AVC 838-SUST 2025)	22
2.3. Elgoibarren gizarte ekipamenduaren obra emakida (LEA/AVC 840-SUST 2025)	24
2.4. Toki-erakundeek eragina jarduera ekonomikoan (LEA/AVC 717-SUST 2024)	25
3. Kontzentrazioak	25
3.1. BBVA-Sabadell kontzentrazioa (LEA/AVC 772-SUST 2024)	26
3.2. Kontzentrazio eragiketarak euskal enpresen partaidetzarekin 2025 (LEA/AVC 795-SUST 2025)	27
4. Laguntza publikoak	28

4.1. Laguntza publikoak EAEn (LEA/AVC 839-SUST 2025)	28
4.2. Gasteizko ikus-entzunezko proiektuetarako deialdia (LEA/AVC 820-SUST 2025)	31
4.3. Getxoko jaietan txosnak jartzeko deialdia (LEA/AVC 847-SUST 2025)	32
5. Azterlanak eta gidak	33
5.1. Hondartzak okupatzeko baimenen lehiaren aldeko kudeaketa (LEA/AVC 803-SUST 2025)	33
5.2. Kalteak eta eskumena: Herri-administrazioan izandako kalteen erreklamazio judizialaren ordezkoko bideak edo bide osagarriak (LEA/AVC 787-SUST 2025)	35
5.3. Barkaberatasun-programari buruzko Gida eguneratzea (LEA/AVC 807-SUST 2025)	36
6. Aurkaratzea	36
7. Kotsultak	37
8. Sustapenerako eta zabalkunderako beste ekimen batzuk	37
8.1. Lehiari buruzko prestakuntza ematea	37
8.2. Ikasleen formakuntza LEA/AVCn	41
8.3. Compliance arloko laguntzak	42
8.4. Kotsulta publikoak	43
9. Merkatu batasuna	43
III. LEHIAREN DEFENTSA	45
1. Ikerketa Zuzendaritzaren ekintzak	46
1.1. Espedienteak esleitzea	47
1.2. SPKLko 132. eta 150. Artikuluak	47
1.3. Ikuskapenak	48
1.4. Zehapen-espedienteak hastea eta izapidetzea	48
1.5. LEKen ebazpenak zaintzea	49
2. LEKaren ebazpenak	49
2.1. Bizkaiko Psikologia Elkargoa (LEA/AVC 741-ZEH 2024)	50
2.2. Hondakinen kudeaketa (LEA/AVC 636-ZEH 2023)	51
2.3. Gipuzkoako prokuradoreak 2 (LEA/AVC 813-ZAIN 2025)	51
2.4. Getaria ostalaritza-prezioak (LEA/AVC 534-ZEH 2021)	52
3. LEKen ebazpenen berrikuspen jurisdikzionala	53
3.1. Villabonako beilatokia (LEA/AVC 592-ZEH 2022)	53
3.2. COVID maileguen luzamendua (LEA/AVC 622-ZEH 2022)	54
IV. JARDUERA INSTITUZIONALA FINKATZEA	55
1. Agenda	56
2. Legebiltzarkide agerraldia	58
3. Estatuko lehia-agintaritzen sarea	59
3.1. Lehiaren Defentsarako Batzordea	59
3.2. Lantaldeak	59
3.3. Lehiaren Jardunaldi Nazionalak	60
4. Foroak eta jardunaldiak	60



4.1. W@Competition urteko konferentzia	60
4.2. EBko Agentzia Sarearen urteroko topaketa: 2nd EU Inter-Agency Contract Management Seminar	61
4.3. OECD-GVH Regional Centre for Competition erakundearen mintegia	61
5. Harreman instituzionalak	62
5.1. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sail	62
5.2. MLBN	62
5.3. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (CES/EGAB)	62
5.4. Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua	63
5.5. Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, S.A.	63
5.6. Espainiako Normalizazio Elkartea (UNE): Hizkuntza argia	63
5.7. Espainiako Compliance Elkartea (ASCOM)	63
5.8. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)	64
5.9. Deustuko Unibertsitatea (UD)	64
5.10. Urdulizko Udala	64
5.11. Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa (CEBEK)	64
6. Nazioarteko harreman instituzionalak	64
6.1. Stanford Computational Antitrust proiektua	64
6.2. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia (EU-OSHA)	65
7. Gardentasuna	65
7.1. Komunikabideak	65
7.2. LEA/AVCren newsletterra	73
7.3. Web-orria eta sare sozialak	74
V. KUDEAKETA JAZEHGARRIA ETA GIZARTERA BIDERATUA	75
1. Pertsonak	76
2. Pertsonen prestakuntza	77
3. Lehiaren arloko Informaziorako Kanal Anonimoa (IKA/CAI)	77
4. Kontratazioan kolusioa hautematea	78
5. LEAren arbitraje-erregelamendua	78
6. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa	79
7. Hizkuntza-normalizazioa	80
7.1. Euskararen erabilera Kudeatzeko Plana	80
7.2. Euskaraldia	81
8. Dirulaguntza bidezko jarduera	81
9. Kontratazioa	81
10. Baliabide ekonomikoak	82
VI. LABURDURAK	83



I. Sarrera

PRESIDENTEAREN AGURRA



Beste urte batez, plazer bat da Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) Jarduera Memoria aurkeztea, oraingo honetan, 2025. urteari dagokiona, lehia defendatzeko eta sustatzeko jarduera bizi eta sendo batek markatutako ekitaldida, Agintaritza honek merkatuen funtzionamendu egokiarekin, interes orokorraren babesarekin eta ekonomia eraginkorrago, berritzaileago eta bidezkoago baten indartzearekin duen konpromisoa berretsiz.

2025ean, LEA/AVCk lan bereziki garrantzitsua egin du bai lehiaren defentsari buruzko araudia aplikatzeko eremuan, bai administrazio publikoen, operadore ekonomikoen eta gizarte osoaren artean lehiaren aldeko kultura sustatzeko eta zabaltzeko eremuan.

Organo aholku-emaila gisa dugun eginkizuna betez, besteak beste, nekazaritzako ustiatzei aholkularitza emateko erakundeen dekretu-proiektuari buruzko txostena egin dugu.

Sustapen-lan hori sektore publiko osora zabaldu da, kontratazio publikoan lehia sustatzera bideratutako jarduketan bidez - administrazio publikoei kontratazioari buruzko prestakuntza ematea, kontratazio publikoan lehia babesteari buruzko jardunaldia egitea, txostenak egitea, eta Kalteak eta lehia azterlana egitea: administrazio publikoari eragindako kalteen erreklamazio judizialaren ordezko bideak edo osagarriak -.

Bereziki, lehiaren kultura sustatzeko lan handia egin dugu udalentsat, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioarentzat – horren erakusgarri da toki-erakundeen lehiari eta jarduera ekonomikoari buruzko jardunaldia egitea edo hondartzak okupatzeko baimenen lehiaren aldeko kudeaketa azterlana egitea –.

Era berean, lehiaren compliance delakoaren garrantzia azpimarratu dugu – enpresei compliance programak ezartzeko laguntzak emateko lehen deialdia egin dugu, eta araudia betetzeko programen onurei buruzko jardunaldia egin dugu –.

Hori guztia agintaritzaren eguneroko lanaren ezaugarri diren zorrotasun teknikoari, independentziari eta profesionaltasunari esker egin ahal izan da.

Aurten, gainera, aldaketa garrantzitsuak izan dira LEAren baliabide pertsonaletan. Nire esker onik zintzoena adierazi nahi diet Agintaritzan beren etapa profesionala amaitu duten pertsonari, gure helburu instituzionalak betetzeko izan duten dedikazioagatik, konpromisoagatik eta ekarpen baliotsuagatik. Haren lanak azterna esanguratsua utzi du erakunde horren sendotzean eta prestigioan.

Aldi berean, ongi etorri adeitsua ematen diet LEA sartu diren pertsonari. Haren etorrera funtsezko errefortzua da egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, gure zeregina indartzen lagunduko duten gaitasun, ezagutza eta ikuspegi berriak emanez.

Memoria honek egindako lanaren ikuspegi argia eta gardena emango duelakoan, eskerrak eman nahi dizkiet LEAren lana posible egiten duten pertsona guztiei, eta Euskadin interes publikoaren eta lehia eraginkorraren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa berritu nahi dut.

Ainara Herce San Martín
Presidentea

1. 2025 Ekintza Plana

2024ko abenduaren 20an, LEAk *LEAren 2025eko aldirako Ekintza Plana* onartu zuen. Ekintza Plana bat dator *2024-2028 Plan Estrategikoarekin*, eta koherentea da LEA/AVCrentzat aldi horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Aurrekontu Orokorretan onartutako aurrekontuarekin.

Ekintza Planak 4 xede zehatzen inguruan hedatu zituen ildo estrategikoak eta lehentasuneko ekintzak:

1) Lehiaren sustapena:

(a) sektore eta jarduera-eremu zehatzen erregulazioa hobetzea;

(b) kontratazio publikoan lehia sustatzea – Berrikuntzaren Erosketa Publikoa sartuz –;

(c) sektore ekonomikoei, kontzentrazio-eragiketei eta laguntza publikoei buruzko azterlanak eta txostenak egitea eta zabaltzea, besteak beste;

(d) ikastaroak sustatzea eta prestakuntza-jardueretan lankidetzan aritzea unibertsitateekin eta beste erakunde eta organismo batzuekin.

2) Jarduera instituzionala eta gardentasuna:

(a) eragile ekonomiko eta sozialengana hurbiltzea sustatzea;

(b) lehiaren agintaritzen sarea eta MLBNrekiko harremana bultzatzea;

(c) gardentasunean eta irisgarritasunean aurrera egitea;

(d) Estatuko, Europako eta nazioarteko foroetan presentzia aktiboa izatea.

(3) Lehiaren defentsa:

(a) lehiaren aurkako praktikak hautemateko berezko bitartekoak indartzea;

(b) kontratazio publikoan kolusio-jardunbideak aztertzea;

(c) sektore behartsuei bereziki eragiten dieten merkatu edo sektore sentikorretan sakontzea.

4) Bikaintasun operatiboa lortzea:

(a) erakundearen egokitzapena bultzatzea eta belaunaldi-erleborako neurriak hartzea

(b) eraldaketa digitaleko proiektuak ezartzea

(c) eraldaketa jasangarriko proiektuak ezartzea.

(d) prestakuntza-ekintzak garatzea erakundearen maila guztietan.

(e) komunikabideetan eta sareetan komunikatzeko eta egoteko ekintzak garatzea.

(f) kudeaketa aurreratuko prozesuak egiaztatzeko aukerak aztertzea.

2025 Ekintza Plana
QR kode honen bidez
kontsulta daiteke:





II.

Lehiaren sustapena

II. Lehiaren sustapena

LEA/AVCK, lehia sustatzeko lanean, lehia zentzu hertsian defendatzera bideratutako jarduketaz bestelako batzuk egiten ditu – hau da, zehapen-arloko jarduketaz bestelakoak –.

Hala, LEA/AVCK txostenak, azterlanak eta ikerketan egiten ditu, eta horien eremua sektore publikoko entitateen jarduketara eta laguntza publikoetara ere hedatzen da; hainbat organismo eta entitateen kontsulta-organo gisa jarduten du -erakunde publikoak, elkargo profesionalak, enpresa- eta sindikatu-entitateak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak-; arau-proiektuei buruzko irizpena ematen du; eta, are gehiago, administrazio-zuzenbideari lotutako egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkaratzeko ahalmenak baliatzen ditu jurisdikzio eskudunaren aurrean.

Lehia sustatzeko lana, funtsean, prebentziozkoa da, eta merkatuetan lehia sustatzea, hobetzea eta erraztea du xede. LEA/AVCK, bereziki, erregulazio ekonomiko onaren printzipioak betetzen ditu – batez ere, premia, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza –. Erregulazio eraginkor batek eskatzen du jarduera ekonomikoak eskuratzeari eta gauzatzeari eragiten dioten arau-esparruak printzipio horietan oinarritzea.

Eragile publikoei dagokienez, sustapen-funtzioa sektore publikoaren jarduerara hedatzen da, betiere esku-hartze horrek merkatuan eragina badu. Bere txostenetan, LEA/AVCK sakon aztertzen du kasu bakoitzean dagokion jarduera ekonomikoaren sektorea, alde batetik, sartzeko edo egikaritzeko


egon daitezkeen oztopoak identifikatzeko, eta, bestetik, eraginpeko merkatuan benetako lehia garatzen laguntzeko egoki diren gomendioak egiteko. Lehiakortasunaren aldeko esku-hartzeak soilik sustatuko du operadore ekonomikoen arteko lehia, inbertsio-maila handiagoetara eta produktibitate-hobekuntza handiagoetara bideratuz, eta kalitatezko enplegua sortzea sustatuko du. Orobat, LEA/AVCK aktore publikoen esku-hartzea ere aztertzen du botere adjudikatzailerik gisa jarduten dutenean.

2025ean, egindako sustapen-jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: *nekazaritza-ustiatzei aholkularitza emateko erakundeen dekretu-proiektuari* buruzko txostena, lehia zaintzeko eta bultzatzeko gomendioak ematen dituen; *hondartzak okupatzeko baimenen lehiakortasunaren aldeko kudeaketari* buruzko azterlana, EAEko hondartzetan jarduera ekonomikoak garatzeko espazio publikoaren kudeaketa lehiakorragoa ahalbidetzea bilatzen duena eta, horretarako, gomendioak egiten dituen; eta *administrazio publikoan kalteak judizialki erreklamatzeko bide alternatibo edo osagarri* buruzko azterlana, zeinaren helburua baita administrazio publikoei erabakiak hartzen laguntzea, lizitazio publiko batean lehiaren aurkako jardunaren ondorioz kaltea jasan dutela egiaztatu ondoren, nola jokatu behar duten egiaztatu ondoren, eta horren ordaina ematea.

Halaber, lehia sustatzeko lan handia egin da kontratazio publikoaren eremuan, eta, horretarako, txostenak egin dira, erosketa publikoan parte hartzen duten eragileei prestakuntza-jardunaldiak



Sustaketa jarduerak 2025ean



eman zaizkie eta *sektoreko kontratazio publikoan lehia babesteari buruzko Jardunaldia* egin da.

Zifretan, LEA/AVCk lehia sustatzeko 63 jarduketa egin zituen. Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK) - LEAren organo ebazlea - 12 arau-txosten eta 12 txosten egin zituen hainbat gairi buruz (EAeri eragiten dioten laguntza publikoei eta kontzentrazio-eragiketei buruzko txostenak, bai eta argitaratutako 2 azterlanak eta gida ere). Sustapenaren eremuan, herritarrek eta eragile ekonomikoek egindako 25 kontsultari emandako erantzuna ere nabarmentzen da. Era berean, prestakuntza emateko 10 ekimen egin dira – bai jardunaldi eta ikastaroen bidez, bai ikasleen prestakuntzaren bidez, kanpoko praktika akademikoak eginez LEA/AVCren bulegoetan, eta prestakuntza-beka bat emanez –, lehiaren defentsaren arloan araudia betetzeko programak

hartzeko dirulaguntza-lerro bat abiarazi da – compliance –, eta 3 kontsulta publiko egin dira.

1. ARAU-TXOSTENAK

1.1. Nekazaritza-ustiatzei aholkularitza emateko erakundeek dekretu-proiektua (LEA/AVC 873-ARAU-2025)

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak txostena eskatu zion LEA/AVCri, nekazaritza-ustiatzei aholkularitza emateko erakundeek dekretu-proiektuari, aitortenari eta erregistroari buruz.



Nekazaritza-politikaren esparruan, Europar Batasunak xedatu zuen estatu kideetako agintari eskudunek lurren eta ustiategiaren kudeaketari buruz nekazariari aholku emateko sistema bat ezarri behar zutela, eta sistema horrek izendatutako agintaritza baten edo batzuen edo erakunde pribatuen ardurapean egon behar zuela. Agindu hori betetz, EAEn [abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua](#) onartu zen, nekazaritza-ustiategiari aholkularitza emateko erakundeak buruzkoa – eta horixe zen sailak eguneratu zuena –.

2023-2027 aldirako NPBraren erreformarekin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [2021/2115 \(EB\) Erregelamendua](#) onartu zen. Erregelamendu horrek NPBrako esparru juridiko berri bat ezarri zuen, eta ustiategietarako aholkularitza-zerbitzuen gutxienezko ildo orokorrak jasotzen ditu. Beharrezkoa zen, beraz, 272/2006 Dekretua erregelamendu horrek (EB) sartutako aldaketetara egokitzea.

Aztertu ondoren, LEKek honako hau ondorioztatu zuen:

- » Erregulazio eraginkorrak eskatzen du jarduera ekonomikoak eskuratzeari eta baliatzeari eragiten dion araudia erregulazio ekonomiko onaren printzipioetan oinarritzea. Bestek

beste, premiaren, proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete behar dira, lehiari oztopoak jartzeari saihestuz.

Arauen oinarri diren arrazoien eta egon daitezkeen aukeren azterketa zorrotza egin behar da.

- » Aztertutako testuak, bai aholkularitza-erakundearen aitortzea lortzeko, bai merkatu horretan zeudenekin jarraitu ahal izateko, betekizun ugari eta zorrotzak betetzeko beharra sartzen du; horietako batzuk debekatuta daude, eta beste batzuk ez daude justifikatuta erregulazio ekonomiko efizientearen printzipioen parametroaren arabera.

Eskakizun horiek merkatuan dauden erakundeak kanporatzea edo desagertzea ekar dezakete, eta operadore berriak sartzea zaildu.

Horren ondorioz, nekazaritza-ustiategiak beren lehentasunen arabera (prezioa, kalitatea eta abar bezalako parametroen arabera) erakunde aholkularia hautatzeko gaitasuna murriztu dezakete.

- » Araudiak ezarritako agindua betetzeko, Sailak, aukeren artean, erakunde horiek lizitazio

publikoaren bidez hautatzea erabaki du, hau da, administrazioak erakunde pribatuen bidez zeharka ematea (beste aukera batzuk izan zitezkeen erakundeak homologatzea, ituna, dirulaguntza, etab.).

Hautaketa-prozesuak, planteatuta dagoen bezala, ez ditu betetzen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko [azaroaren 8ko 9/2017 Legean](#) (SPKL) jasotako erosketa publikoko prozesuak gidatu behar dituzten printzipioak; besteak beste, lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, lizitazioaren arteko diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna, eta lehia askearen babesa.

- » Nekazaritzaren EAEko administrazioek identifikatu behar dute beren helburua prestazio-premia bati erantzutea den edo, aitzitik, politika publiko bat sustatzea den.

Lehenengo kasuan (prestazio-premia), kontratutresnetara jo behar dute nekazaritza-ustiatzei aholkularitza-zerbitzua emateko.

Bigarren kasuan (sustapena), dirulaguntza-tresnak antola ditzakete EAEn aholkularitza-sistema sustatzeko - barnean har ditzake bai aholkularitza-erakundeentzako laguntzak (zerbitzu-emaileak), bai nekazaritza-ustiatzeientzako laguntzak (zerbitzuaren azken hartzaileak) -.

Hori guztia dela eta, LEKek txostenean aztertutako alderdi kritikoak berrikustea eta identifikatu zituen lehiaren murrizketak ezabatzea gomendatu zuen.

1.2. Euskadiko Turismo Mahaiaren dekretu-proiektua (LEA/AVC 848-ARAU-2025)

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak txostena egiteko eskatu zion LEA/AVCri, Euskadiko Turismo

Mahaiaren funtzionamendu- eta antolaketa-araubideari buruzko dekretu-proiektuari dagokionez.

Euskadiko Turismo Mahaia [urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretuaren](#) bidez sortu zen. Dekretu horrek Turismoa Antolatzeko [martxoaren 16ko 6/1994 Lege](#) indargabetua garatzen zuen. Ondoren, Euskadiko Turismoaren [uztailaren 28ko 13/2016 Legea](#) (Turismoaren Legea) onartu ondoren, [apirilaren 2ko 59/2019 Dekretuaren](#) bidez, mahai hori sortzeko dekretua aldatu zen, [legearen](#) aginduetara egokitzeko.

Hainbat baldintzek erregulazio berri bat eskatzen zuten, batez ere Mahaiaren osaerari eta funtzionamenduari dagokienez, baina horrek ez zuen esan nahi mahaia desagertuko zenik, [Turismoaren Legearen](#) premisapean, zeinak turismo-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren aholku-organo gisa eratzten baitu, eta honako hau aurreikusten baitu: «*Euskadiko Turismo Mahaiaren antolaketa, funtzioak, osaera eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira*».

Proposatutako zirriborroa aztertu ondoren, LEKek, lehiari eragiten dioten neurriak sartzeko joera handiena duten bi elementuak kontuan hartuta (hau da, Mahaiaren osaera eta funtzioak), ondorioztatu zuen ez zela lehia mugatzen zuen neurririk aurreikusten.

Nolanahi ere, gogorarazi zuen, turismo-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren turismo-arloko aholkularitzako eta partaidetzako kide anitzeko organoa den aldetik, administrazioari lagundu behar diola erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioen arabera jarduten, eta, beraz, ez dituela eman behar lehia murrizteko, mugatzeko edo eragozteko xedea duten edo izan dezaketen jardunbideak, edo ez dituela onartu behar arau-testuak, zeinetatik oztopoak sor baitaitezke turismo-merkatuko jarduera ekonomikoetara sartzeko edo haietan askatasunez aritzeko.

1.3. Zepak balorizatzeko dekretu-proiektua (LEA/AVC 742-ARAU-2024)

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak LEA/AVCri eskatu zion Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko jarduerari aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezala, ondoren bigarren mailako agregakin gisa erabiltzeko.

LEKek gogorarazi zuenez, administrazio publikoek merkatuan sartzea mugatzen edo eragozten duten sarrera-oztopoak ezartzen badituzte, traba horiek baldintza batzuk bete behar dituzte. Oztopoak operadore berriak merkatu jakin batean sartzeko gogoia kentzen edo zuzenean eragozten duten zailtasun edo kostu guztiak dira.

Azaroaren 23ko 17/2009 Legeak, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoak (Aterki Legea), zati batean sartu zuen Espainiako zuzenbidean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa (Zerbitzuen Zuzentaraua). Aterki Legearen arabera, zerbitzu-jarduera batean sartzea edo aritzea arautzen duen araudiak ezin du baimen-araubiderik ezarri, salbuespen gisa eta honako baldintza hauek betetzen

direnean izan ezik: premia, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza.

Baldintza horiek betetzen direla behar bezala arrazoitu beharko da araubide hori ezartzen duen legean. Halaber, baimenen kopurua mugatu ahal izango da, natura-baliabideen eskasiagatik edo eragozpen tekniko nabariengatik justifikatuta dagoenean.

Dekretu-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoaren alde aurreko baimena behar du hondakinen balorizazio energetikotik eratorritako zepak balorizatzeko jarduerak garatzeko. LEKen aburuz, baimen-araubide hori bat zetorren Euskadiko Ingurumen Administrazioaren [abenduaren 9ko 10/2021 Legean](#) ezarritakoarekin. Era berean, LEKek ondorioztatu zuen zepak balorizatzeko eta bigarren mailako agregakinen erabilera baimenduetarako ezarritako betebeharrekin babesa zutela osasun publikoko eta ingurumena babesteko arrazoietan.

1.4. Interneteko domeinuei buruzko agindu-proiektua (LEA/AVC 872-ARAU-2025)

Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Arreta eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak txostena eskatu zion LEA/AVCri Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu-proiektuari buruz. Agindu horren bidez, Euskal



Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta haren Administrazio instituzionalaren domeinuak, azpidomeinuak eta web-ezizenak, Interneteko presentzia-arauak eta gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasuna arautzen dira.

LEKek egiaztatu zuen txosten-eskaeraren arrazoia zela arauaren aplikazio-eremu subjektiboa LEA-AVCra ere hedatzen zela (politika ekonomikoaren eta lehiaren defentsaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitako izaera administratiboko erakunde autonomoa).

Nolanahi ere, arau-proiektua aztertzeari ekin zitzaion, erregulazio ekonomiko eraginkorra arautzen duten printzipioak kontuan hartuta; izan ere, printzipio horien arabera, erregulazioak ez dio lehiari bidegabeko trabarik jarri behar interes orokorraren aurka.

Testua aztertuta, LEKek ondorioztatu zuen ez zela ikusten eragile ekonomikoek merkatuan duten jardueran zuzeneko eraginik.

1.5. Bilboko HAPO aldatzea, ostatu-jarduera turistikoa (LEA/AVC 800-ARAU-2025)

2025eko urtarrilean, Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman zion Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) aldaketari, ostatu turistikoei eta etxebizitza kolektiboei dagokienez. Zehazki, Udalak beharrezkotzat jo zuen HAPOren araudia berrikustea, bizitegi-erabilerari, jarduera ekonomikoaren erabilerari eta ekipamendu-erabilerari dagokienez, ostatu-modalitate berriak arautzeko (hala nola ostatu turistikoak, etxebizitza kolaboratiboak edo egoitza komunitarioak).

Erregulazio berriak aurreikusten zuen aldaketak egitea araubide orokorrean – udalerrri osoan ezartzekoa –, ezarpen-araubide berezi bat sartzeari buruzko turismo-ostatu gehiago biltzen diren

eremuetan, eta etxebizitza kolektiboak argitzea eta antolatzea – etxebizitza kolaboratiboak eta egoitza komunitarioak –, bai eta gela turistikoei (HT) mugak ezartzea ere HAPOren bidez.

Aldaketarekin, Bilboko Udalak erabilera turistikoen erregulazio bat ezarri nahi zuen, hirigintzaren ikuspegitik, uztartu ahal izateko etxebizitza-eskubidea eta hiri-ingurune egoki bat eta turismo-enpresak ezartzeko askatasuna.

Proposatutako aldaketak aztertu ondoren, LEKek ondorioztatu zuen udalerriek, hirigintza-plangintzaren arloan dituzten eskumenak baliatuz, hiri-eredua ezartzen dutela, eta, horretarako, jarduera ekonomikoak gauzatzeari murrizketak ezartzeko ahalmena dutela, interes orokorreko premiazko arrazoi batek justifikatuta daudenean, lortu nahi den helburuarekiko proportzionalak direnean eta diskriminatzaileak ez direnean.

Horregatik, erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioak kontuan hartzeko betebeharra berretsi zuen - besteak beste, beharra, proportzionaltasuna, diskriminaziorik eza, segurtasun juridikoa, gardentasuna, irisgarritasuna, sinpletasuna, eragingarritasuna eta eraginkortasuna-. Alde horretatik, ontzat jo zuen Udalak arau-proposamena justifikatzeko egindako ahalegina. Zehazki, LEKen ustez, Udalak behar bezala justifikatu zituen arau-proiektuarekin batera zetorren memorian HAPOa aldatzea eragin zuten interes orokorreko arrazoiak - besteak beste, etxebizitza duin eta egokia eskuratzea eta gozatzea, bai eta hiri-ingurunea zaintzea ere -.

Nolanahi ere, kontzentrazio handian oinarrituta erabilera turistikorako etxebizitzaren (ET) kopurua murrizteko neurriari dagokienez, LEKek irizpide objektiboak sartzeari gomendatu zuen, behar bezala kontrastatuak, kontzentrazio handia noiz gertatu den zehazteko. Horrekin batera, LEKek nabarmendu zuen kontzentrazio-indizeak aintzat hartutako maximoetatik urrun zeuden eremuetako - Abandoibarra eta Abandoko geltokia- murrizketen

intentsitatea ez zegoela behar bezala justifikatuta, eta, beraz, motibazioa indartzea gomendatu zuen.

1.6. Guardiako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren aldaketa (LEA/AVC 818-ARAU-2025)

Operadore ekonomiko batek LEAri jakinarazi zion Guardiako Udalak hasierako onarpena eman ziola Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren aldaketa puntualari, ostatu turistikoko jardueri eta beheko solairuetako erabilerei buruzkoa. Operadoreak adierazi zuen, aldaketarekin batera, debekatuta zegoela Guardiako Hirigune Historiko osoan edozein jarduera turistiko egitea.

2024ko urriaren 18an, Guardiako Udalaren Osoko Bilkurak, Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren aldaketa puntualari hasierako onespena emateaz gain, erabaki zuen, alde batetik, bi urtez etetea hirigintza-onarpenak, -baimenak eta -lizentziak ematea, zehaztapen berriek indarrean dagoen araubide juridikoa aldatzea dakarten eremuetan, eta, bestetik, lizentziak emakida etetea. Aldaketak Hirigune Historikoaren jarduera-eremuari eragiten zion.

Turismoaren, gentrifikazioaren, eskaintza-eskasiaren eta higiezin merkatuaren garestitzearen testuinguru orokor batean, ordezkotako turismo-ostatuak ugaritu izanak - hala nola VTak edo HTak - areagotu egin du horien eraginari buruzko eztabaida publikoa, eta administrazio publikoen erreakzioa behartu du, hainbat arau- eta administrazio-tresnaren bidez jarduera hori ordenatzen eta hiri-ingurunean eta herritarren bizitzan dituen ondorioak arintzen saiatu baitira.

LEKek, lurzorua erabileren hirigintza-erregulazioak hiri-eredu bat ezartzeko aukera ematen duela onartu ondoren, gogorarazi zuen horrek eragina duela jarduera ekonomikoaren erabileran, haren garapenari mugak ezar diezazkiokeelako; beraz, esku-hartze hori

diseinatzean, kontuan hartu behar dira erregulazio ekonomiko efizientearen printzipioak.

Hirigintza-erregulazioak eragin negatiboa izan dezake eragindako merkatuetako lehia-baldintzetan, eta lehia eraginkorra egotea zaildu dezake, edo, are gehiago, sartzeko oztopoak erabatekoak direnean (merkatua ixtea), hura eragotzi. Udalerriek, hirigintza-plangintzako tresnen bidez, jarduera ekonomikoak ezartzeko eta garatzeko mugak ezarri nahi badituzte, interes orokorreko premiazko arrazoietan oinarritu beharko dute, eta premiaren, proportzionaltasunaren eta ahalik eta distortsio txikiaren printzipioetara egokitu beharko dute, bai eta diskriminazio ezari ere.

Auzitegiek, jarritako errekurso judizial ugariak direla eta, problematika sakon hau aztertzei aukera izan dute, eta irizpideak ezarri dituzte, bai legegilearentzat, bai administrazio publikoarentzat, eragileen interesen (jabeak, erabiltzaileak, auzokoak) eta interes orokorraren artean oreka aurkitzeko.

Guardiako kasu zehatzean, arau-proposamenak ezartzen du hirigune historikoaren eremuan etxebizitza-erabilera ez dela bateragarria hotel-erabilerarekin, eta ez duela onartzen beste ostatu turistiko batzuk erabiltzea. Horrenbestez, LEKen arabera, horrek merkatua ixten zuen eremu horretako turismo-ostatu mota guztietan, eta horrek erakargarritasun handia du.

Guardiako Hirigune Historikoaren ezaugarri eta baldintzatzaile berezietatik - Kultura Ondasuna da, Monumentu Multzo kategoriarekin - eta eraikinen izaera historikotik abiatuta, LEKek ondorioztatu zuen Udalak ez zuela justifikatu merkatu-itxieraren proportzionaltasuna turismo-ostatu mota guztietarako, lortu nahi den xedea lortzeko: udalerriko Hirigune Historikoaren eremuan etxebizitza duin eta egoki baterako sarbidea babestea. Zehazki, ez zen aztertzen zer eragin izan zezaketen VTek alokairu-erregimeneko bizitegi-etxebizitza eskuratzeko orduan, eta ez zen kontuan hartzen etxe hutsik ote zegoen, ez eta bizitegi-aloairuaren merkatuan tentsiorik ote zegoen ere, eta ez zen azaltzen

turismo-saturazioaren adierazlerik, udalerrian ETen egoera probatzea ahalbidetuko zuenik, turismo-jarduerak Guardiako ekonomian duen garrantziarekin lotuta.

Gainera, Lehiaren Euskal Kontseiluak gogorarazi zuen ezen, txostena egiteko arrazoa higiezin bat birgaitzeko obrak egiten ari zen operadore ekonomiko batek planteatutako kontsulta zela, indarrean zegoen udal-araudira egokitze - horrek, ordea, aukera ematen zion, obrak hasi zenean, etxebizitza turistikoaren jarduera ekonomikoa gauzatzeko -.

Era berean, segurtasun-printzipioak, edozein erregulazio egitean gidatu behar duenak, eskatzen du operadore ekonomikoek ordenamendu koherente eta aurreikusgarriak izatea, jardun behar duten ala ez erabakitzen laguntzeko. Ondorioz, aurretik zeuden baldintzak aldatzen dituzten erregulazioek berariaz adierazi behar dute zer egoeratan geratuko diren sektorean instalatuta dauden operadoreak.

1.7. Bizkaiko Medikuen Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 824-ARAU 2025)

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak txostena eskatu zion LEA/AVCri Bizkaiko Medikuen Elkargo Profesionalaren Estatutuen aldaketari buruz.

Estatutuen testua aztertu ondoren, LEKek honako alderdi hauek aldatu behar zirela erabaki zuen:

- » elkargora nahitaez bildu beharra behin-behinekoa da, harik eta estatuko lege batek elkargora nahitaez bildu beharra zehazten duen arte;
- » Elkargoaren eginkizuna ez da medikuntza antolatzea, baizik eta medikuntzaren lanbidea antolatzea;

- » Bizkaikoa ez den elkargo bateko kide den profesionalak lurralde-eremu horretan eta Estatuko beste edozein elkargotan jardun dezake, eta, horrekin batera, elkargoak ezin dio eskatu medikuntza-arloko beste elkargo bateko kide den profesional bati Bizkaian lanbidean jarduteko inskripzioa, komunikazioa edo gaikuntza.

- » profesionalaren erantzukizun zibileko aseguruia eskatzen da osasun laguntza pribatuaren eremuan diharduenean, eta, gainera, ezin da aseguru edo konpainia jakin bati atxikitzea inposatu, ezta bermatu beharreko xedeari dagokionez neurritz kanpoko estaldurarik eskatu ere (proportzionaltasun-printzipioa).

Orobat, intrusismoko edo lehia desleialeko jokabideei dagokienez, LEKek gogorarazi zuen elkargoaren eginkizun bakarra jurisdikzio-organo eskudunei intrusismoko edo lehia desleialeko praktiken berri ematea zela, dagokion araudia aplikatzeko. Ondorioz, intrusismo profesionalaren kasuak jakinarazteko betebeharra ez betetzearekin lotutako diziiplina-arau-haustea kentzea gomendatu zuen; nolahi ere, diziiplina-neurriak lehia desleialeko jokabideak daudela deklaratzeko bada hartu behar dira, ez jasota dauden portaeren berri emateko betebeharra urratzen bada.

Azkenik, LEKek aurreikuspen bat eranstea gomendatu zuen, lanbidean lehia askeko araubidean jardun dadin, eta, zerbitzu-eskaintzari eta zerbitzu-ematearen gainerako baldintzei dagokienez, Lehiaren Defentsari buruzko [uztailaren 3ko 15/2007 Legearen](#) (LDL) mende egongo da.

1.8. Arabako Industria Ingeniaritzaren Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 836-ARAU-2025)

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailak Arabako Industria

Ingeniarien Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketari buruzko txostena eskatu zion LEAri.

Estatutuen testua aztertu ondoren, LEKek honako alderdi hauek aldatu behar zirela erabaki zuen:

- » lanbidearen ordezkartza eskusiboa, gaur egun, Industria Ingeniaritzaren lanbideari dagokio; izan ere, elkargoak bere titulazioan industria-ingeniartzaren eskuduntza guztiak eman ez zaizkien profesionalak bil ditzake (hau da, industria-ingeniartzaren adar bateko tituludunak izan arren, titulazio horren berezko eskumenak dituzten pertsonak elkargokide egin daitezke, baina ez industria-ingeniartzaren lanbidearenak);
- » elkargokide izateak lanbidean jarduteko aukera emango du, baldin eta elkargoko kide egitea nahitaezkoa bada, hots, industria-ingeniartzako lanbideari dagokionez, eta ez industria-ingeniartzako adarretako lanbideei dagokienez, horietarako industria-ingeniartzaren eskuduntza guztiak eskatzen ez badira;
- » elkargoko kide egitea ezin da etengabe lotu lanbide-egoitza bakarrarekin edo nagusiarekin, elkargoan lehen aldiz sartzeaz gain;
- » Elkargoak bere helburuekin lotutako irizpenak eta txostenak baino ezin ditu eman, eta bere jarduketan xedea ezin da izan ingeniartzaren lanbideari dagozkion zerbitzuak ematea;
- » oniritziari dagokionez, elkargokideak lan profesionalak aurkeztu beharko ditu legeztatzeko eta ikus-onesteko, betekizun hori nahitaezkoa denean edo bezeroek berariazko eskaera bat egin dutelako;
- » kostuak tasatzeko irizpide orientagarririk ezin da egin; izan ere, irizpide orientagarriak egiteko aukera abokatutzaren lanbiderako baino ez dago aurreikusita, eta, debekuzko arau orokorraren salbuespena denez, modu murriztailean interpretatu behar da, eta aukera hori bera ezin da beste lanbide batzuetara hedatu;
- » lege bidez baino ezin zaio eskatu zerbitzuak ematen dituenari erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat edo beste berme baliokideren bat sinatzeko, zerbitzua ematean sor daitezkeen kalteak estaltzeko; izan ere, Elkargoan inskriba litezke bai industria-ingeniartzan diharduten pertsonak, bai beste lanbide batzuetan dihardutenak, eta aseguru soilik legeak aseguru bat sinatzea eskatzen duen zerbitzuetarako da nahitaezkoa.



Era berean, LEKek elkargoari gogorarazi zion, peritu izendatzeko profesionalen zerrenda egitean, lehiaren araudia errespetatzen zela zaindu behar zuela. Hala, Elkargoak aukeran izango du, dagokionaren arabera, elkargokideen zerrenda ematea edo berak izendatzea.

Ordainsariak kobratzeari dagokionez, Elkargoak ez du prezioak finkatzera edo orientatzera bideratu behar bere jarduna.

Sarrera-kuotari, elkargoko kuotei eta ekarpenei dagokienez, proportzionalak eta ez-diskriminatzaileak izan behar dute, eta Elkargoak elkargokideari benetan emandako zerbitzuetan oinarrituta egon behar dute. Nolanahi ere, LEKek azpimarratu zuen ez direla erabili behar lanbidean sartzeko gogoia kentzeko bide gisa, are gehiago elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideei dagokienez - industria-ingeniaritzaren berezko eskumenak dituzten elkargokideen kasuan bezala -.

1.9. Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 877-ARAU-2025)

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketari buruzko txostena eskatu zion LEAri.

Estatutuen testua aztertu ondoren, LEKek honako alderdi hauek aldatu behar zirela erabaki zuen:

- » elkargoko kide egitea ezin da etengabe lotu lanbide-egoitza bakarrarekin edo nagusiarekin, elkargoan lehen aldiz sartzeaz gain;
- » Elkargoak, farmazia-bulegoak irekitzeko ordutegia ezartzen parte hartuz, ez du farmazia-bulegoak lehiatzea eragotzi edo mugatu behar;
- » Elkargoak eman ditzakeen irizpen, txosten, azterlan edo analisisen xedea ezin dira farmazia-lanbidearen berezko zerbitzuak izan;

- » farmazia-bulegoen *in situ* ikuskapena osasun-agintaritzari dagokion ikuskapen-lanari dagokio, eta, ondorioz, elkargoari elkargokideen deontologia profesionalaren esparruan dagozkion ahalmenak gainditzen ditu.

Halaber, LEKek gomendatu zuen artikulua bat gehitzea, lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia-arabidean garatzeari buruzkoa.

Erantzukizun zibileko aseguruari, abalari edo finantza-bermeari dagokionez, LEKek gogorarazi zuen elkargokideek asistentzia sanitario pribatuaren eremuan lan egiten dutenean bakarrik eska daitekeela. Horri dagokionez, gainera, Elkargoak -aseguratzeko betebeharra betetzen dela bermatuko du - kontuan izan behar du (1) eskatutako bermeak estalitako arriskuaren izaerarekiko eta irismenarekiko proportzionala izan behar duela; (2) Elkargoak ezin du, inola ere, aseguru edo konpainia jakin bati atxikitzea inposatu.

Ordainsariak kobratzeari dagokionez, Elkargoak ez du prezioak finkatzera edo orientatzera bideratu behar bere jarduna.

Sarrera-kuotari, elkargoko kuotei eta ekarpenei dagokienez, proportzionalak eta ez-diskriminatzaileak izan behar dute, eta Elkargoak elkargokideari benetan emandako zerbitzuetan oinarrituta egon behar dute. Nolanahi ere, LEKek azpimarratu zuen ez direla erabili behar lanbidean sartzeko pizgarriak kentzeko bide gisa, are gehiago lanbide horretan jarduteko nahitaez elkargoko kide izatea eskatzen denean.

Azkenik, Elkargoak LDLren aurkako jardunbideak izan daitezkeen itunak edo hitzarmenak ezarri direla jakiten duenean, LEAri jakinaraztea gomendatu zuen.

1.10. Euskadiko Biologoaren Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 876-ARAU-2025)

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren estatutuak aldatzeari buruzko txostena eskatu zion LEAri.

Estatutuen testua aztertu ondoren, LEKek honako alderdi hauek aldatu behar zirela erabaki zuen:

- » elkargokide izateko, profesionalen gaitasun-eta egokitasun-irizpideak lehenetsi behar dira, elkargokide izateko aukera titulu espezifiko bat edukitzearekin lotu beharrean, eta, nolahi ere, elkargokide izateko aukera ematen duten titulazioen katalogoa - eta, beraz, lanbidean jarduteko aukera - ahalik eta zabalena izan beharko da;
- » elkargoko kide egitea ezin da etengabe lotu lanbide-egoitza bakarrarekin edo nagusiarekin, elkargoan lehen aldiz sartzeaz gain;
- » kostuak tasatzeko ordainsari profesionalak dagokienez, irizpide orientagarriak egiteko aukera abokatzaren lanbiderako soilik dago aurreikusita, eta, beraz, aukera hori ezin da beste lanbide batzuetara zabaltu;
- » ikus-onespenari dagokionez, elkargokideek borondatezko ikus-onespena eskatu beharko dute, betiere bezeroek berriazko eskaera egiten badute.

Era berean, LEKek gomendatu zuen artikulua bat gehitzea, lanbidearen jarduna profesionalen arteko lehia-araubidean garatzeari buruzkoa.

Peritu izendatzeko profesionalen zerrenda egitean, elkargoak lehiaren araudia errespetatzen dela zaindu behar du. Hala, Elkargoak, dagokionaren arabera, elkargokideen zerrenda eman dezake, edo elkargokideak bere kabuz izendatu.

Ordainsariak kobratzeari dagokionez, Elkargoak ez du prezioak finkatzera edo orientatzera bideratu behar bere jarduna.

Sarrera-kuotari, elkargoko kuotei eta ekarpenei dagokienez, proportzionalak eta ez-diskriminatzaileak izan behar dute, eta Elkargoak elkargokideari benetan emandako zerbitzuetan oinarrituta egon behar dute. Nolanahi ere, LEKek azpimarratu zuen ez direla erabili behar lanbidean sartzeko pizgarriak kentzeko bide gisa, are gehiago lanbide horretan jarduteko nahitaz elkargoko kide izatea eskatzen denean.

1.11. Arabako Graduatu Sozialen Elkargoaren estatutuen aldaketa (LEA/AVC 809-ARAU-2025)

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak Arabako Lan Harremanetako Graduatuaren Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketari buruzko txostena eskatu zion LEA/AVCri.

Proposatutako testua aztertu ondoren, LEA/AVCk egiaztatu zuen aldaketek korporazioaren egoitzari eta elkargoaren antolaketa-alderdiei eragiten zirela - ohiko batzar orokorra egiteko epeari buruzkoak -, eta alderdi horiek ez zutela lehia mugatzen zuen betebeharririk edo baldintzarik sartzen. Era berean, egiaztatu zuen Elkargoaren indarreko estatutuek LEKen 2016ko azaroaren 15eko txostenean adierazitako gomendioak txertatu zituztela.

1.12. Etxebizitzaren, lurzorua eta hirigintzaren arloko premia- neurriei buruzko lege- proposamena (LEA/AVC 881-ARAU-2025)

Etxebizitzaren, lurzorua eta hirigintzaren arloko premia- neurriei buruzko lege- proposamena aztertu ondoren (lurzorua mobilizatza, etxebizitza babestuen eta libreen sustapena erraztera, hirigintza- prozedurak eta lotutako beste prozedura batzuk arintza eta turismo-erabilera etxebizitzekin lotutako gehiegikeriak saihestera bideratutako



hainbat tresna aurreikusten ditu), LEKek positibotzat jo du prozedurak sinplifikatzeko neurriak hartzea.

Turismoaren Legearen 20. artikulua 4. apartatuaren aldaketari dagokionez, zeinak ezartzen baitu bizitegi-merkatu tentsionatu deklaraturako eremuetan automatikoki etengo dela erabilera turistikoko etxebizitza eta gela berrien jarduera, eta etete horrek iraungo duela bizitegi-merkatu tentsionatu deklarazioaren indarraldi osoan, LEKren ustez, interes orokorreko arrazoiengatik justifikatuta dago jardueraren oztopoa.

2. SEKTORE PUBLIKOARI EGINDAKO TXOSTENAK ETA GOMENDIOAK

Lehia sustatzeko lanean, LEA/AVCk hainbat txosten egin ditu sektore publikoari gomendioak egiteko. Horietako bi - dirulaguntzen deialdiak aztertzea xede izan dutenak - Memoriaren II.4 atalean aztertuko dira, laguntza publikoei buruzkoan.

2.1. Nautika- eta kirol-jardueren emakida Laidan eta Lagan (LEA/AVC 797-SUST-2025)

LEA/AVCk jakin zuen Laga eta Laidako hondartzetako ur- eta kirol-jardueretarako itsas-lehorreko jabari publikoko espazioa modu pribatiboan erabiltzeko emakidaren adjudikazioa prozedura irekiaren bidez arautzen duen administrazio-klausula zehatzen plegua, Ibarrangeluko Alkatetzaren 2024ko abenduaren 13ko Dekretuaren bidez onartua.

LEKek gogorarazi zuen kontratazio publikoko prozeduren lizitazio-fasean lehia egoteak berebiziko garrantzia duela; izan ere, botere adjudikatzaileek eta, oro har, gizarteak eskaintzarik onenen onurak jasotzen dituztela ziurtatzen du, prezioari, kalitateari eta berrikuntzari dagokienez.

Aztertutako kontratazio-prozeduran, LEKek nabarmendu zuen, adjudikazio-irizpideen konfigurazioagatik, lor zitekeen puntuazioaren erdiak baino gehiagok lotura zuzena zuela lurralde-hurbiltasuneko irizpideekin. LEKen aburuz, irizpideak

prestaziotik eta kontratutik lor zitezkeen emaitzetatik deskonektatuta zeuden. Enpresa baten lurralde-hurbiltasuneko irizpideak ez dira balorazio-irizpide gisa onartu behar diskriminatzaileak direnean, interes orokorreko premiazko arrazoiek justifikatzen ez dituztenean, lortu nahi duten helburua beteko dela bermatzeko egokiak ez direnean edo xede hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago doazenean.

Aztertutakokasuan, hurbiltasun-irizpidebat ezarri zen materiala gorde eta biltegitzeko eta erabiltzaileei arreta emateko lbarrangeluko udalerrian edo udalerririk mugakideetan. Irizpide horrek ez zituen errespetatzen sarbide-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, eta ez zuen proportzionaltasunik kontratuaren objektuarekin. Lizitzaileek aukera berberak izan behar dituzte eskaintzak egiteko. Lokal baten titulartasuna eskatzeak kanpoan uzten ditu lokal bat errentamendu-erregimenean edo beste edozein tituluren arabera eduki dezaketen operadoreak.

Orobat, ekintzak hondartzetan egiten dira, eta berdindio materiala zein herritan gordetzen den, betiere ordutegietan eta hondartzetan eskuragarri badago prestazioa betetzeko ekintzak egiteko unean. Materiala gordetzeko lekua hurbil egotea ingurumen-irizpideekin lotuta egon liteke. Horretarako, berariaz justifikatu behar da kontratuaren objektuarekin lotura dagoela eta berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatzen direla, eta eskaintzak lehia eraginkorreko baldintzetan ebaluatzen direla.

Lokalaren gertutasunari dagokionez, jendeari bertaratzegatik, alde batetik, egungo teknikaren egoerak jendeari laguntzeko eta urruneko izapideak egiteko aukera ematen du, eta, bestetik, jarduerak egiteko unean behar den laguntza lokal batetik kanpo ematen da, jarduerak ematen diren hondartzetan bertan ematen baita.

Era berean, LEKek desegokitzat jo zituen irizpide hauek: (1) baimena eskatu izana edo esleipendun

izatea lbarrangeluko udalerriko hondartzetarako soilik nautika- eta kirol-jardueretarako, edo egoitza soziala lbarrangelun izatea; (2) aurreko urteetan Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertz Mugarteak baimena eman izana Laidako eta Lagako hondartzetan zerbitzua emateko, zeinak agerian uzten baitzuen lehiarako abantaila bat zegoela egungo esleipendunentzat, eta ez zuela loturarik exekuzioaren onurekin; (3) ekitaldiak antolatzea lbarrangeluko udalerrian, zeinak ez baitu proportzionaltasunik kontratuaren objektuarekin -ur- eta kirol-jardueretarako erabilera pribatiboa ematea, loteka-.

2.2. Bilboko aireportuko taxiaren aldi baterako baimenak (LEA/AVC 838-SUST-2025)

Urdulizko Udalak LEA/AVCrik jakinarazi zion Bizkaiko Foru Aldundiak 25 baimen gehigarri eman zituela Bilboko aireportuan bidaiariak jaso ahal izateko, urgentziaz eta aldi baterako, udaldirako.

Aldundiak hainbat dokumentu bidali zizkion LEA/AVCrik, jakinarazteko, Garraio, Mugikortasun eta Turismo foru diputatuaren 2025eko maiatzaren 22ko Foru Aginduaz gain, aireportuko araubide bereziko eremua konponbide iraunkor gisa onartzea aurreikusten zuela.

Bidaiariak Hiri Barruan eta Herriz Kanpo Autoz Garraiatzeko Garraio Publikoari buruzko [ekainaren 29ko 2/2000 Legeak](#) araubide bereziko eremu bat ezartzeko aukera ematen du, portuen, aireportuen, trenbide- edo autobus-geltokien, ospitaleen, azoken, merkatuen edo antzekoen ondorioz, edo, bi udalerriren edo gehiagoren artean trafiko-interakzioa dagoelako, hainbat udalerriri eragiten dien trafiko handia sortzen denean eta zentro horiek kokatuta dauden udalerrietako baimenen eta lizentzien titularrek behar bezala artatzen ez dutenean.

1998an, zerbitzuaren eskariari behar bezala erantzuteko, baimenak eman zitzaizkien aireportuko



terminala – Sondika, une hartan – kokatuta zegoen udalerriaz bestelako udalerrri batzuetako ibilgailuei. [1998ko Foru Aginduak](#) mekanismo bat ezarri zuen zerbitzuaren betebeharrak betetzen ez ziren kasuetarako baimenak kontrolatu eta ezeztatzeko. Baldintzak ez betetzeagatik baimena baliogabetzen bada, zerrenda bateko udalerrietan lizentzia duten beste titular batzuei emango zaie, lehentasun-ordena bati jarraituz.

2000. urtean, aireportua handitu eta terminal berria jarri zen Loiuako udalerrian. Taxi-zerbitzuen eskaria handitzearen ondorioz, 20 baimen berri eman ziren – 91 izatetik 111 izatera igaro ziren –. [2000ko Foru Aginduak](#) berak aurreikusten zuen, eragindako udalei kontsulta egin eta sektoreko elkarte adierazgarrienei entzun ondoren, aplikatu beharreko funtzionamenduraubidea ezarriko zela. Baina, araubide hori ezartzen zenez, 111 baimenak aldi baterako banatu ziren, eskuratutako eskubiderik sortu gabe. Berriz ere, 2000ko Foru Aginduak kontrolatzeko eta ezeztatzeko

mekanismo bat ezarri zuen, lehentasuneko zerrenda batekin, ez-betetzeagatik baliogabetze kasuetarako.

LEKek gogorarazi zuen, baimenen kopurua mugatuta dagoen heinean, baimena emateko prozedurak publikotasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak betetzen direla bermatu behar duela. Lizentzia Loiu ez duten operadoreen kasuan, baimena lortzea aireportuan jatorria duen taxi-zerbitzua emateko oztopoa da.

2000ko Foru Aginduan aurreikusitako lehentasun-zerrendak baimenak emateko errespetatu beharreko ordena bat ezartzen zuela abiapuntutzat hartuta, LEKek ondorioztatu zuen, baimen berriak emateko, Aldundiak *ad hoc* prozedura bat prestatu behar zuela, erregulazio ekonomiko onaren printzipioak beteko zituen. Hala, neurria aldi baterako mugatua izateak ez du esan nahi printzipio horiek bete behar ez direnik. Baimen berrien deialdia aldeztatik ezagutu behar zen, eta argitaratu egin behar ziren

baimenen esleipendunak hautatzeko erabiliko ziren irizpideak.

Azkenik, araubide bereziko eremuari dagokionez, LEKek ondorioztatu zuen eremu hori sortzeak zerbitzu hobea emango diela taxiaren erabiltzaileei, oro har, eta, bereziki, aireportuan jatorria duten taxi-zerbitzuen erabiltzaileei, hala nola lizentzia berriak sortzea, taxi egokituen kopurua handitzea, batera emateko eremuak sustatzea, eta jatorria aireportuan duen taxi-zerbitzua emateko baimenen kopurua handitzea. LEA/AVC ez dago taxi-zerbitzuen erabiltzaileen ezinegonetik kanpo; izan ere, hainbatetan salatu dute taxiak ez direla nahikoak Bilboko aireportuan jatorria duten zerbitzuak emateko.

2.3. Elgoibarren gizarte ekipamenduaren obra emakida (LEA/AVC 840-SUST-2025)

Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentek (OIREscon) zalantza hau jakinarazi zion LEAri: Elgoibarko "6.E - El Pilar" eremuan aparkaleku bat eraikitzeke obra-emakidarako eta obretarako kontratu mistoa xede duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio publikoko prozeduraren agirietan ezarritako baldintzak lehia mugatzeko faktorea izan zitezkeen.

Administrazio publikoek eragina izan dezakete merkatuaren dinamiketan, merkatura jotzen dutenean beharrezkoak zaizkien ondasunak, obrak eta zerbitzuak hornitzeko — hau da, botere adjudikatzaille gisa jarduten dutenean —. Jarduera ekonomikoan egiten den esku-hartze publiko orok, lehia askearen jokoan eragiteko egokia den batezbestekoan, honako parametro hauek errespetatu behar ditu: premia, egokitasuna eta lehia-murrizketa minimoa, proportzionaltasuna, diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna.

Emakida-kontratuen konplexutasun tekniko handiagoak, kostu handiagoak eta iraupen handiagoak

ziurgabetasun-maila handiagoa dakarte. Emakida batek irauten duen bitartean, merkaturaren itxita egongo da. Obra publikoaren emakida-kontratuaren bidez, kontratistak obra-kontratu bati dagozkion prestazioak egiten ditu, eta, kontraprestazio gisa, obra ustiatzeko eskubidea eta, hala badagokio, prezio bat jasotzen ditu. Emakida-kontratuaren irizpide mugatzailea da nork hartzen duen bere gain eragiketa-arriskua. Emakida-kontratu batean, adjudikaziodunak ez dauka aseguratutako inbertsioak berreskuratzeko, ez eta egin dituen kostuak ordaintzeko ere.

Emakidei datzekien eskusibotasunak lehia oztoka dezake emakida-kontratuaren eremu geografikoan, eta, hala, emakidadunaren lehiakideek ezin izango dute lehia egin, funtsean baldintza baliokideetan. Beraz, kontratu-harremanaren iraupena funtsezkoa da. Nolanahi ere, LEKek gogorarazi zuen emakida-epea ezin dela modu independentean finkatu, baizik eta koherentea izan behar duela eragiketa-arriskuaren konfigurazioarekin. Nolabaiteko ziurgabetasuna oinarri hartuta, esleipendunak merkaturaren itxita du — eraikina eraiki ondoren, ustiatu egingo du —. Itxiera hori obra ustiatzeko egindako inbertsioak berreskuratzeko arrazoizkoa den denboran luzatu behar da — inbertitutako kapitalaren gaineko errendimenduarekin batera —.

Kontratuaren oreka ekonomikoari dagokionez, LEKek, kontzeptu juridiko zehaztugabea dela abiapuntutzat hartuta, gogorarazten du kontratuari eusteko eskubideak ez duela esan nahi kontratuaren edozein hausturak kontratua berrezartzeko beharra dakarrenik. Berrezartzea bidezkoa izango da soilik hausturaren kausa administrazioari egotz dakiokenean (*ius variandi* edo *factum principis*) edo itundutakoari zorrotz lotzea fede onaren eta, batez ere, edozein kontratu publikorekin egin nahi den interes orokorraren (ezinbesteko kasua edo aurreikusi ezin den arriskua) aurkakoa izan daitekeenean.

Aurreikusi ezin den arriskua nagusiki jurisprudentzian eta doktrinan sortutako figura bat da. Jurisprudentzia berriak aurreikusi ezinezko arriskuaren eremutik kanpo uzten ditu alde aurreko aurreikuspen edo

azterlanetan akatsen bat duten kasuak. LEKek azpimarratzen du hasierako azterlan geoteknikoan jada adierazten zela ezen, eraikinaren diseinu zehatzik ez zegoenez, egonkortasun-kalkuluak eta bultzadak berriro egin beharko zirela. Beraz, aurreikusteko moduko egitate edo inguruabar bat zen, kontratistak kontratua egin zen unean ezagutzen zuena eta, ondorioz, kontratistak bere gain hartu zuena. Ondorioz, ez zegoen kontratua aldatzeko beharra arrazoitzen zuen aurreikusi ezinezko inguruabarrik.

2.4. Toki-erakundeen eragina jarduera ekonomikoan (LEA/AVC 717-SUST-2024)

2024ko irailean, LEKek toki-erakundeek jarduera ekonomikoan duten eragina azterlana onartu zuen, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin (MLBN) lankidetzan garatutako Udallerriak eta lehia proiektuaren esparruan. Dokumentua jendaurrean jarri eta ekarpenak egin ziren. Azkenik, alegazioen aldia amaitu ondoren, dokumentua 2025eko otsailean eguneratu eta LEAren webgunean argitaratu zen.

Azterlana 2025eko otsailaren 6an aurkeztu zen, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen egoitzan jardunaldi bat eginez.

3. KONTZENTRAZIOAK

Lehiaren eremuan, kontzentrazioen kontrola enpresen kontzentrazio-eragiketek merkatuaren egiturari eta lehiari izan dezaketen eragina ebaluatzeko gainbegiratze-sistema da. Beraz, *ex ante* kontrol-sistema bat da, eragindako enpresen negozio-bolumenaren edo merkatu-kuotaren atalase jakin batzuk gainditzen dituzten kontzentrazio-eragiketen gainean hedatzen dena (LDLren 8. artikulua), eta, hortaz, kontzentrazioa ezin izango da gauzatu, hala badagokio, baimena eman arte.

Kontzentrazio jakin batzuk ekonomia osoarentzat onuragarriak izan badaitezke ere - eraginkortasunak, sinergiak eta eskalako ekonomiak eragin ditzakeelako -, beste batzuk, posizio menderatzaile bat sortzen edo indartzen dutenean, oztopo esanguratsua izan daitezke lehia eraginkor baterako. Horregatik, alde aurreko kontrol bat antolatu da, atalase jakin batzuk gainditzen dituzten kontzentrazio-eragiketak jakinaraztea eskatzen duena.

Lehia murrizten duten jardunbideen arloan ez bezala - agintaritza autonomikoen eskumena dute zehapen-prozedurak izapidetzeko eta ebazteko -, [otsailaren 21eko 1/2002 Legeak](#), Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzekoak (LKL), ezartzen du Estatuari dagokiola, nolahi ere, nahitaez jakinarazi beharreko atalaseak betetzen dituzten kontzentrazio ekonomikoak aztertzea.

LDLk bi fasetan konfiguratu du MLBNren aurreko kontzentrazioak kontrolatzeko prozedura.

Lehenengo fasean, MLBNren Kontseiluak erabakitzen du jakinarazitako eragiketa artxibatu egin behar den, baimendu daitekeen (konpromisoekin edo gabe) edo zehatzago aztertu behar den. Azken kasu honetan, bigarren faseari bide emango litzaioke, eta bertan hirugarren interesdunen parte-hartzea aurreikusten da. Lehenengo fasean, ez zaie inolako zereginik ematen eskumen autonomikoko agintaritzei.

Bigarren fasean, kontzentrazio-eragiketa aztertu ondoren, MLBNren Kontseiluak ebazten du kontzentrazioa osoko bilkuraren baimena behar den, konpromisoak dituen baimena behar den, debekatuta dagoen edo, LDLn aurreikusitako kasuetan, jarduerak artxibatzea erabaki behar den. Konpromisoak ez badira nahikoak identifikatu diren lehia-arazoak konpontzeko, Kontseiluak erabaki dezake kontzentrazioari baldintzak ezartzea jakinarazleak proposatutako konpromisoak osatu edo ordeztzeko. Azkenik, identifikatutako lehia-arazoak konpontzeko konpromisorik edo baldintzarik ez badago, Kontseiluak kontzentrazioa galarazi dezake.

Bigarren fasean, agintari autonomikoen parte-hartzea aurreikusten da, baldin eta eragin nabarmena badu autonomia-erkidego baten lurraldean. Hala, nahitaezko txostena eskatu beharko zaio eragindako autonomia-erkidegoari, baina ez loteslea.

Legeak Ministro Kontseiluaren salbuespenezko esku-hartzea aurreikusten du, halako moldez non, eragiketa jakin bat bigarren fasean zehar debekatu bada edo konpromiso edo baldintzen mende jartzen bada, Ekonomia Ministerioak Ministro Kontseiluari helaraztea erabaki lezake, eta hark MLBNren proposamenetik desbidera lezake, baina inoiz ez lehia-irizpideetan oinarrituta, baizik eta beste mota batekoak (hala nola segurtasun nazionalen, ingurumenaren babesean edo berrikuntzaren sustapenean, adibidez).

3.1. BBVA-Sabadell kontzentrazioa (LEA/AVC 772-SUST-2024)

2024ko maiatzaren 31n, BANCO SABADELL SAREN kontrol eskusiboa eskuratzean datzan kontzentrazioaren jakinarazpena sartu zen MLBNn. (SABADELL) BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. (BBVA), 2024ko maiatzaren 9an iragarritako eskuratze-eskaintza publiko (EEP) baten bidez.

2024ko azaroaren 12an, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak erabaki zuen – lehen fasean – kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozeduraren bigarren fasea hastea. Lehen fasean aurkeztutako konpromisoek identifikatutako arazo guztiak konpontzea ezinezkoa zela ondorioztatu zuen. Zehazki, ohartarazi zuen, besteak beste, arriskua zegoela merkataritza-baldintzak okertzeko, finantza-bazterkeria jasateko eta ETEei kreditua murrizteko.

LEKek kontzentrazioaren jakinarazpenari buruzko txosten igorri zuen, BBVAK SABADELLEN kontrol eskusiboa eskuratzeaz eta horrek EAEn izanditzakeen ondorioei buruzkoa. Nolanahi ere, txostena ez zen egin kontzentrazioa kontrolatzeko prozeduraren esparruan [LDLren 58.1 artikuluan eta [otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak](#) (XEE) onartutako Lehiaren Defentsarako Erregelamenduaren 65.3 artikuluan arautua]; aitzitik, BBVAren EEPk SABADELLEN gainean duen eskumenari eta EAEn izan dezakeen eraginari buruzko balorazioa egiteko soilik eman zen.

LEKek nabarmendu zuenez, kontzentrazio-eragiketen azterketan, estatu mailako irudi agregatuak desitxuratu egin dezake dimentsio geografiko txikiagoko eremuetako egoeren hautematea. Beraz,



funtsezkoa da lehia-lehia aztertzea estatu mailako mugapeetan; izan ere, ezaugarri bereizgarrien arabera, bat-egite batek ondorio espezifikoak ekar ditzake lehiaren ikuspegitik.

1988an BANCO VIZCAYAren eta BANCO BILBAOren artean (biak ere EAEn kokatuak) egindako fusioagatik abiatuta, egiaztatu da Espainiako finantza-sektorea sakonki berregituratu dela, batez ere 2008tik aurrera, fusioen bidez. Berregituratze-prozesu horren ondorioz, murriztu egin da banku-operadoreen kopurua – 281 erakunde 2008. urtearen hasieran eta 183 erakunde 2024ko irailean –, eta, aldi berean, handitu egin da merkatuaren kontzentrazioa. Eremu geografiko txikiagoetan – hala nola EAEn edo Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde historikoetan –, kontzentrazio-indize desberdinetatik abiatuta, fusio batek eragin bereziki esanguratsua izan dezake zonako lehian, dauden erakunde lehiakideen arabera.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustez, bereziki interesgarria zen BBVAK, Bilbon egoitza duenak, SABADELLekeko aurreikusitako fusio-eragiketak EAeko lehian izan zitzakeen ondorioak aztertzea, are gehiago kontuan hartuta SABADELLek 2012an BANCO GUIPUZCOANO hartu zuela – erakunde horrek presentzia nabarmena zuen EAEn eta, bereziki, Gipuzkoan –. Hain zuzen ere, fusioak intzidentzia handiagoa du lurralde horretan.

Bat-egiteak txikizkako bankuen eta aseguruaren zerbitzu-merkatuetan eta bulego- eta kreditu-kopuruaren aldagaietan – bai enpresetan, bai hipoteketan eta bai kontsumoan – duen eragina aztertuta, LEKek ondorioztatu zuen BBVA-SABADELL kontzentrazioak ez zekarrela, a priori, nagusitasunezko posizio baten indartze erabakigarriak, eta ondoriozko erakundea ez zuela nagusitasunezko posizioan jartzen aztertutako espazio-eremu guztietan (autonomikoa, lurralde historikokoa, udalekoa eta posta-kodekoa). Nolanahi ere, lehiakideen kopurua murrizteak lehia-tentsioa murriztu zezakeela ohartarazi zuen, eta, gainera, modu atomizatuagoan adierazi zuen arreta berezia jarri beharko litzatekeela bat egiteak Gipuzkoako enpresa-kredituen segmentuetan izango

litzakeen ondorioetan eta Mutrikuko udalerrian izango lukeen egoeran – azken horrek % 50eko merkatu-kuota izango luke eta 4 operadoretik 3ra pasatuko litzateke –.

3.2. Kontzentrazio-eragiketak, euskal enpresen partaidetzarekin 2025 (LEA/AVC 795-SUST-2025)

LEA/AVCk MLBNk onartutako kontzentrazio-eragiketen urteko jarraipena egiten du, kontzentrazio horiek EAEn kokatutako enpresei zer neurritan eragiten dieten kuantifikatzeko eta, ondorioz, LEA/AVCk kontzentrazio horien ondorioen analisia aldeztu aurretik egitearen egokitasuna baloratzeko. 2025ean, LEAk zazpigarren txostena egin zuen.

Txostenak jaso zuen 2014-2025 aldian Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak 986 kontzentrazio-eragiketa baimendu dituela guztira. Horietatik 13 bigarren fasean baimendu dira (horietatik 12 konpromisoekin; eta horietatik 2tan euskal enpresek parte hartu dute).

EAeko enpresek – bai erositakoek, bai erosleek – 2014tik baimendutako 105 eragiketatan parte hartu zuten, hau da, kontzentrazio guztien % 10,65ean. Urteko batez besteko gisa, euskal enpresaren bati eragiten dioten 9 eragiketa onartu dira. EAeko enpresei eragin zieten 105 eragiketetatik ia guztiak – 102 – lehen fasean onartu ziren (horietako 6 konpromisoekin). Kontzentrazioetako bi bakarrik baimendu ziren bigarren fasean konpromisoekin – C/1151/20: MÉMORA/REKALDE/IRACHE, 2021eko irailean baimendua, eta C/1470/24: BBVA/BANCO SABADELL, 2025eko apirilaren 30ean baimendua, baina azkenean ez zen gauzatu –. 2025eko ekainaren 24an, Ministro Kontseiluak BBVAren kontzentrazio-eragiketa SABADELLe gainean baimentzea erabaki zuen, baldintza honekin: BBVAK eta SABADELLek hiru urtez – bost urtera arte luza daitezke – nortasun juridikoa, ondare bereziak eta kudeaketa-autonomia izatea. Era berean, MLBNk ezarritako konpromisoak berrestea erabaki zuen; BBVAK EEPrekin jarraitzea

erabaki zuen, Gobernuak ezarritako baldintzak gorabehera, baina SABADELLko akziodunen % 25ek soilik onartu zuten akzioak erostea (BBVak eragiketarekin jarraitzeko ezarritako gutxieneko % 30etik behera). 2025eko urriaren 16an, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak EEParen emaitza negatiboa iragarri zuen.

Azken urtean (2024ko uztailetik 2025eko ekainera), MLBNk EAEko enpresaren baten partaidetza izan duten 13 eragiketa baimendu zituen. Kontzentrazioetako 9tan EAEko enpresa izan zen eskuratzailerak, eta 4tan, berriz, eskuratuak.

Berrikuntza esanguratsu gisa, LEA/AVCk azpimarratu zuen Europako Batzordeak, 2025eko maiatzaren 8an, kontzentrazioei buruzko gidalerroen berrikuspenari buruzko kontsulta publiko bat hasi zuela, kontzentrazioek lehiari duten eraginaren ebaluazioaren arloko Europar Batasunaren (EB) araudia modernizatzeko. Berrikuspenak 2004ko kontzentrazio horizontalei buruzko Zuzentarauak eta 2008ko kontzentrazio ez-horizontalei buruzko Zuzentarauak hartuko ditu barne.

Beste urte batez, LEA/AVCk berretsi zuen komenigarria dela Euskadiri nabarmen eragiten dioten kontzentrazio-eragiketa guztietan, prozeduraren edozein fasetan, LEA/AVCren esku-hartzea izatea.

4. LAGUNTZA PUBLIKOAK

4.1. Laguntza publikoak EAEn (LEA/AVC 839-SUST-2025)

Bosgarren urtez jarraian, LEAk EAEko laguntza publikoen txostena onartu zuen. Dokumentuaren helburua da laguntza publikoen arau-esparrua hobeto ezagutzen laguntzea, Euskadik 2015etik 2024ra arte emandako laguntzen azterketa estatistikoa egitea, eta Espainiarekin eta Europar Batasuneko (EB) estatu kideekin alderatzea.

EBren lehia-politikaren helburu nagusia da barne-merkatuaren funtzionamendu egokia ahalbidetzea. Horretarako, EBk zenbait tresna ditu: lehia defendatzeko arauak, enpresen arteko kontzentrazio-eragiketen kontrolari buruzko arauak eta estatu-laguntzei edo laguntza publikoei buruzko arauak. Laguntza publikoei buruzko arauen xedea da Estatuak behar ez den moduan esku har ez dezan lortzea, enpresa edo sektore jakin batzuei mesede egiteagatik lehia faltsutzen badu edo faltsutzeko arriskua badu eta estatu kideen arteko merkataritzari eragiten badio. Europako Batzordea laguntza publikoak kontrolatzeko arduradun nagusia da.

Egungo testuinguruan – pandemiak eta nazioarteko gatazkek eragindako krisi ekonomikoaren ondoren –, laguntza publikoak tresna garrantzitsuenetako bat dira administrazioen esku, susperraldi ekonomikoa sustatzeko eta sektore kalteberenei laguntzeko.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (EBFT) 107. artikulutik 109. artikulura arautzen ditu laguntza publikoak, debeku honetatik abiatuta: «*Tratatuek besterik xedatzen ez badute, estatu kideen arteko merkataritza-trukeei eragiten dieten heinean, barne-merkatuarekin bateraezinak izango dira estatuak emandako laguntzak edo estatu-funtsen bidez emandakoak, edozein modutakoak direla ere, baldin eta lehia faltsutzen badute edo faltsutzeko modukoak badira, eta enpresa edo ekoizpen jakin batzuen alde egiten badute*».

EBFTk berak, 107. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan, adierazten du zer laguntza jo daitezkeen barne-merkatuarekin bateragarritzat. EBFTren 107.2 artikuluan jasotako kasuetan, laguntzen bateragarritasuna automatikoa da, ezohiko egoerei, elkartasun edo premia bereziko arrazoiei erantzuten baitiete. EBFTren 107.3 artikuluan jasotakoetan, laguntzak bateragarritzat joko dira Europako Batzordeak baimentzen dituen neurrian; beraz, gauzatzen hasi aurretik, Europako Batzordeari jakinarazi beharko zaizkio, hala badagokio, baimendu ditzan. Hala ere, bi salbuespen daude alde aurretik



jakinarazi beharri dagokionez: *minimis* deitutakoak eta Kategorien araberako Salbuespenen Erregelamenduari heltzen diotenak.

Europako Batzordearen ustez, estatu kideek beren enpresei emandako laguntza batzuk ez dira estatu-laguntza gisa kalifikatzen, lehian dituzten ondorioak mugatuak direlako, eta *minimis* laguntza gisa sailkatzen ditu.

Erregelamendua (EB)	Eremua	Hasiera data	Amaiera data
2023/2831	Orokorra	2024ko urtarrilak 1	2030ko abenduak 31
ZENBATEKOAREN MUGAK:		300.000 € 3 urtetan	
2023/2832	Interes Ekonomiko Orokorreko Zerbitzuak (IEOZ)	2024ko urtarrilak 1	2030ko abenduaren 31
ZENBATEKOAREN MUGAK:		750.000 € 3 urtetan	
1408/2013	Nekazaritza (ekoizpen primarioa)	2024ko abenduak 16	2032ko abenduak 31
ZENBATEKOAREN MUGAK:		50.000 € 3 urtetan	
717/2014	Arrantza eta akuikultura (ekoizpen primarioa)	2023ko urriak 26	2029ko abenduak 31
ZENBATEKOAREN MUGAK:		40.000 € 3 urtean	

Kategorien araberako Salbuespen Erregelamenduek baldintza orokor batzuk eta berariazko beste batzuk ezartzen dituzte laguntza-kategoria jakin batzuetarako. Baldintza horiek errespetatuta, laguntzak Europako

Erregelamendua (EB)	Eremua	Hasiera data	Amaiera data
651/2014	Orokorra (RGEC)	2014ko uztailak 1	2026ko abenduak 31
2022/2472	Nekazaritza- eta basogintza-sektorea eta landa-eremuak (ABER)	2023ko urtarrilak 1	2029ko abenduak 31
2022/2473	Arrantza eta akuikultura (FIBER)	2023ko urtarrilak 1	2029ko abenduak 31

Batzordeari alde zurretik jakinaraztetik salbuetsita daude, eta jakinarazpen hori *a posteriori* egindako jakinarazpen baten bidez eratzten da.

Definizio zehatzik ez dagoen arren, Europako Batzordea eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia laguntzaren kontzeptua eratzeko behar diren elementuak zehazten joan dira.

LEAren txostenerako, *State Aid Reporting Interactive* (SARI) datu-basean jasotako datuak erabili ziren, bai eta denbora-esparruen arabera emandako laguntzei buruzko datuak ere – COVID-19 Aldi Baterako Esparrua eta Krisiaren eta Trantsizioaren Aldi Baterako Esparrua (Errusiak Ukraina inbaditu ondoren ekonomia babesteko laguntza-neurriei buruzkoa) –.

EAEn 342,36 milioi euro eman ziren 2024an. Termino erlatiboetan, BPG-aren % 0,35 izan dira 2024an. 2015-2024 aldian EAEn emandako laguntzen guztizko bolumenaren % 0,37 soilik jakinarazi eta baimendu du Europako Batzordeak; % 99,63, berriz, gerora jakinarazi dira, Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamenduaren arabera eman baitira.

Ikusi zen EAEn, alde batetik, BPG-arekiko laguntza erregularren bolumena pixkanaka handitu dela 2015etik 2024ra arte – 2021ean izandako murrizketa izan ezik –, eta, bestetik, laguntza sektorialek – sektore ekonomiko espezifikoetara bideratuak – BPG-an duten pisua berriro handitu dutela 2024an, 2023an izandako murrizketaren ondoren. Laguntza horizontalak – ez daude sektore ekonomiko zehatzetara mugatuta, eta, ondorioz, ahalmen distorsionatzaile txikiagoa dute – emandako laguntza ororen % 85,6 izan ziren 2024an.

Laguntza horizontalen helburuetan oinarrituta, I+G+Bra bideratutako laguntzen ehuneko handia nabarmendu zen (% 60,4). Atzetik datoz enplegurako laguntzak (% 24,8) eta ETEentzako laguntzak (% 10,6). Kulturarako eta ondarea kontserbatzeko dirulaguntzak laguntza horizontal guztien % 2,4 dira, eta, azkenik, ingurumenaren eta energia-

efizientziaren helburuak guztizkoaren % 0,26 hartzen du. Halaber, bi helburu berri gehitu ziren: ekintzailtza (% 1,39) eta ikus-entzunezko lanak (% 0,16).

Laguntza sektorialaren xedeari dagokionez, laguntzak bi bloke handitan banatzen baditugu – garapen sektoriala eta nekazaritza eta arrantza –, 2024an nekazaritzarako eta arrantzarako laguntzek goranzko bilakaera izan zuten 2017tik, baina 2023an murriztu egin ziren, eta berriro handitu. 2022an, bi helburuen arteko dibertsifikazio handieneko puntura iritsi zirenean, guztizkoaren % 42ra heldu ziren, 2023an nabarmen murrizteko eta, 2024an, berreskuratu, % 22ra iritsi arte.

Dirulaguntza izan zen gehien erabili zen laguntza-tresna, eta 2024an % 92,75era iritsi zen. Mailegu edo aurrerakin itzulgarriek beheranzko joera erakutsi zuten; abantaila edo salbuespen fiskalak, berriz, presentzia marjinala izan zuten, % 2tik beherakoa aztertutako aldi osoan.

Erregulazio-berrikuntzei dagokienez, 2024ko abenduaren 10ean, Europako Batzordeak nekazaritza-sektoreko *minimis* erregelamendua aldatu zuen. Gainera, 2025eko ekainaren 26an, Europako Batzordeak estatu-laguntzen esparru berri bat onartu zuen Industria Garbiaren aldeko Ituna (CISAF, ingelesezko siglak) babesteko. Esparru hori 2030eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta 2022tik indarrean dagoen Krisiaren eta Trantsizioaren Aldi Baterako Esparrua ordeztu du.

Jakinarazi zaizkion laguntzei buruz Europako Batzordeak hartutako erabakiei dagokienez, 2024ko abenduaren 16an, gradu erdieroaleko diamante sintetikoak ekoizten laguntzeko Espainiako estatu-laguntza bat onartu zuen *Diamond Foundry Europe* enpresak [EBFTren 107.3 a) artikulua]; eta, 2025eko apirilaren 15ean, Espainiako estatu-laguntzen araubide bat onartu zuen hidrogeno berriztagarriaren ekoizpena babesteko [EBFTren 107.3 c) artikulua].

Azkenik, 2025eko ekainaren 5ean, Europako Batzordeak kontsulta bat egin zuen IEOZetarako estatu-laguntzei buruzko arauak berrikusteari buruz, etxebizitza eskuragarria eskuratzeko aukera hobetzeari dagokionez, eta, 2025eko uztailaren 14an, SIEGaren berrikuspenaren irismenari eta edukiari buruzko ekarpenak jasotzeko egin zuen.

4.2. Gasteizko ikus-entzunezko proiektuetarako deialdia (LEA/AVC 820-SUST-2025)

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak kontsulta bat egin zion LEAri ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzen deialdiaren oinarriari buruz (2025. urtea). Zehazki, aurreikuspen bat sartzeko aukera kontsultatu zuen, eta, horren arabera, onuradunak proiektuaren garapenaren kostuaren % 30 erabili beharko du, gutxienez, Gasteizen bizi diren edo ezarrita dauden pertsona fisiko edo juridikoek egindako lanak egiteko.

Beste behin ere, LEKek azpimarratu zuen botere publikoek, jarduera ekonomikoetan eragina duten arauak egitean edo aplikatzean, ingurune eraginkorragoa sustatu beharko dutela jarduera ekonomikoa edo enpresa-jarduera garatzeko, eta, nolana ere, justifikaziorik gabeko edo neurritz kanpoko murrizketak ezartzea saihestu beharko dutela. Sustapen-ahala baliatzean, merkatuan disfuntziorik ez sartzea zaindu behar dute. Zehazki, operadore ekonomikoek emandako laguntza publikoek lehia-indarren joko askea alda dezakete, eta, beraz, laguntzen deialdiak merkatuen funtzionamendu eraginkorra alda ez dezaten diseinatu behar dira.

Lehiaren Euskal Kontseiluak gogorarazi zuen laguntzak eskuratzeko baldintzek objektiboak izan behar dutela eta lehia-neutraltasunaren printzipioa errespetatu behar dutela, eta ezein operadore ez zaiola kausa subjektiboetan oinarritutako abantailarik eman behar. Orobat, MBBLren 5. artikuluan eta SPAJLren 4.1 artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak bete behar dira: premia, egokitasuna eta gutxienezko murrizketa, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza.



Deialdiaren oinarriak aztertu ondoren, egiaztatu zen ezen, onuradun izateko baldintza orokor gisa, egoitza soziala eta fiskala Gasteizen izatea eskatzen zela. Lurralde-baldintzatzaile bat da. Dirulaguntza publikoak emateko baldintza izango da operadore ekonomikoek beren establezimendua toki jakin batean kokatuta izatea, establezimendua badutenak pribilegiatuta, ez dutenen aldean. Ondorioz, LEKek ondorioztatu zuen baztertu egin behar zirela lurralde-eremu jakin batean errotuta dauden operadoreei pribilegioa ematen dieten baldintza guztiak. Hala ere, ez da diskriminatzailetzat jotzen operadoreak administrazio emakida-emaiaren lurraldean jarduera ekonomikoa sor dezan eskatzea.

Era berean, LEKek aztertu zuen onuradunek proiektuaren garapen-kostuaren gutxienez % 30 kontratatu behar zutela Gasteizen bizi ziren edo ezarrita zeuden operadoreekin. Aurreikuspen horrek ez zien eragiten dirulaguntzaren onuradunei – laguntzaren zuzeneko hartzaileei –, baizik eta onuradunek kontratatzen zituzten operadoreen egoeran eragiten zuen. Halaber, onuradunen aukerak mugatzen zituen; izan ere, Gasteizen bizi diren edo kokatuta dauden operadoreekin - beste lurralde batzuetan kokatutako operadoreengana jo beharrean - kontratatuz beharko lituzketen ondasun eta zerbitzuez hornitzera behartuta zeuden. Lurralde-murrizketen tipologia hori sartzeak desitxuratu egiten du azken onuradunaren erabakia, mugatu egiten baititu zerbitzuaren emaila edo ondasunaren hornitzailea hautatzeko aukerak. Ondorioz, LEKek gomendatu zuen aipatzea kontratatutako operadore horiek Gasteizen jardun behar zutela edo jarduera ekonomikoa sortu behar zutela.

4.3. Getxoko jaietan txosnak jartzeko deialdia (LEA/AVC 847-SUST-2025)

LEA/AVCk idazki bat jaso zuen, Getxoko jaietan txosnak jartzeko oinarrien edukiak lehiaren defentsari buruzko araudia urra zezakeela jakinarazteko; izan ere, Getxoko Erakundearen Erregistroan inskribatutako

irabazi asmorik gabeko tokiko elkarreentzat baino ez ziren. Horrela, espazio publikoaren banaketatik kanpo uzten ziren automatikoki beste eragile ekonomiko batzuk, hala nola enpresak, autonomoak edo udalerritik kanpoko erakundeak.

Hasteko, LEKek gogorarazi zuen, baimenen kopurua mugatuta zegoen heinean, emakida-prozedurak printzipio hauek betetzen zirela bermatu behar zuela: publikotasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna, gardentasuna eta norgehiagoka. Zehazki, txosnak noizean behin instalatzeko espazio publikoa okupatzeko, alde aurretik gaikuntza-titulua eman behar zen, eta Udalak emango zuen.

Udalak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-komunitatearen beharrak eta nahiak asetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzake. Kudeaketa horren adierazpen bat da sustapen-ahalmena gauzatzean jarduketak egitea, hau da, interes publikoko helburu bat betetzeko jardueraren bat egiten laguntzea helburu duen edozein laguntza edo pizgarri.

Dirulaguntza da, zalantzarik gabe, laguntza kontzeptu ezagunena, baina Udalak, sustapen-ahala baliatuz, gauzazko laguntzak ere eman ditzake. LEKen ustez, kasu honetan, gauzazko laguntza bat zen, espazio publikoaren zati bat aldi baterako okupatzeko lagatzean zetzan. Hori aztertzeke, kontuan hartu zuen organo sustatzaileak – Getxo Kultura erakunde autonomoak – udalerriko jaietan kultura sustatzeko eta herritarrek parte hartzeko helburua bete nahi zuela.

EAEko hainbat udalerritako ordenantzak aztertuta, askok bereizten dute, alde batetik, herriko jaietan txosnak jartzea, eta, bestetik, noizbehinkako azoka eta merkatuetan kalez kaleko salmentarako postuak jartzea. Udal-erakunde batek azokak eta merkatuak antolatzea sustapen-ahalaren esparruan sar daiteke, eta horren justifikazioa, besteak beste, kalitate handiko produktuen kontsumoa sustatzeko helburuan, nekazaritzari eta artisautzari laguntzean,

ingurumena errespetatuz; Getxo Kulturaren kasuan, berriz, sustapen-jarduera udal-interes publikoko gizarte-, kultura- edo kirol-proiektuak eta -jarduerak egiten dituzten erakundeei laguntzeko helburuan oinarritu zitekeen. Bi jarduketak sustapen-ahalean sar badaitezke ere, helburu desberdinak zituzten.

Getxo Kulturaren deialdiaren kasuan, espazio publikoa denbora mugatuz okupatzeko baimena ematen zen - udalerriko jaiak ospatzeari zegokiona -, irabazi-asmorik gabeko erakundeek interes orokorreko jarduera ekonomiko bat egin ahal izateko; hau da, aurreikusten zen erakunde horiek merkataritza-jarduera horretatik lortzen zituzten diru-sarrerak aldatu egingo zirela edo elkarte bakoitza sortu zen interes orokorreko jarduerak egiteko erabiliko zirela.

LEKek ondorioztatu zuen toki-erakundeak hainbat tresna erabil zitzakeela xede horiek lortzeko: erakunde horiei dirulaguntzak emateko deialdi publikoak egin zitzakeen, edo gauzazko laguntzak emateko deialdiak egin zitzakeen – aztertutako kasuan bezala –.

5. AZTERLANAK ETA GIDAK

5.1. Hondartzak okupatzeko baimenen lehiaren aldeko kudeaketa (LEA/AVC 803-SUST-2025)

Lehiaren aldeko praktikak sustatzeko bere jardueraren esparruan, LEAk azterlan bat argitaratu zuen, EAEko hondartzetan jarduera ekonomikoak garatzeko espazio publikoaren kudeaketa lehiakorragoa ahalbidetzea helburu duena.

Euskadik 48 hondartza ditu, Estatuko itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren barruan. Espazio mugatuak dira, eta, erabilera publiko komunaz gain, zerbitzu publikoak emateko jarduerak eta aisialdiarekin eta kirolarekin lotutako jarduera ekonomikoak biltzen dituzte, espazioaren zati bat

gutxi gorabehera modu intentsiboan okupatzea eskatzen dutenak.

Lehiaren zuzenbidearen printzipioetatik abiatuta, azterlanak EAEko itsasertzeko hondartzan eremu berezia azpimarratzen du, indarrean dagoen arau-esparrua aztertzen du, bai eta hondartzak eragile ekonomikoei esleitzeko titulu gaitzaileak emateko deialdien alderdi garrantzitsuenak ere, eta gomendio batzuk ematen ditu.

EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialak (martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez onartua) bi kategoria ezartzen ditu: (a) babes bereziko eremuak, hondartza naturalen kasuan; (b) erabilera bereziko eremuak, hiri-hondartzan kasuan. Hiri-hondartzetan jarduera ekonomikoak garatzeko (zaharberritzea, kioskoak, eguzkitakoak eta etzaulkiak alokatzea, surf, bela eta uretako beste kirol batzuetarako eskolak, etab.), hondartza horietako batzuk okupatu behar dira. Administrazio eskudunari dagokio okupazioa baimentzeko tituluak esleitzea.

Alde batetik, instalazio desmuntagarriak soilik behar dituzten hondartzetan sasoiko zerbitzuak ustiatzeko baimenak ditugu. Eskatzen duten udalei ematen zaizkie, beren kabuz edo hirugarrenen bidez sasoiko zerbitzuak ustiatzeko – hau da, urtaroko zerbitzuak ustiatzeko –. Baimenak berekin dakar udalak okupazio-kanon bat ordaindu beharra. 2025eko apirilaren 1etik aurrera, EAEko Administrazio Orokorrari dagokio udalei baimenak ematea. Ondorioz, EAEko Administrazio Orokorrak udalei emango dien lehen baimena egongo da, eta, ondoren, udalek hondartzetan sasoiko zerbitzuak ustiatzeko baimenak emango dituzte, publikotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak errespetatuz.

Beste aldetik, intentsitate-, arrisku- edo errentagarritasun-inguruabar bereziak dituzten jardueretarako baimenak ditugu. Horiek emateko, arauetan ezarritako lehentasun-hurrenkera beteko da, eta, halakorik izan ezean, onura



publiko handienekoak lehenetsiko dira. Zerbitzu-jarduerak direnean, publizitate-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak errespetatu beharko dira. EAEko Administrazio Orokorrari dagokio ematea.

Beraz, udalen eskumena izango da baimena lortu duten sasoiko zerbitzuak ustiatzea; intentsitate-, arriskugarritasun- edo errentagarritasun-jarduerak egiteko baimenak ematea, berriz, EAEko Administrazio Orokorraren eskumena izango da.

Surf-eskolen jarduerak okupazioa eskatzen du. Goraka ari den jarduera da, bai aisialdiaren ikuspegitik, bai turismoan duen eraginagatik. Hala ere, urtarokotasunik gabeko jarduera da, nahiz eta urteko aldi jakin batzuetan eskaera handiagoa izan. Karakterizazio horren ondorioz, LEKek ondorioztatu zuen baimenak emateko eskumena EAEko Administrazio Orokorrarena dela. Horri dagokionez, LEKek adierazi zuen surfaren katalogazio egokia alderdi kritikoa dela, eta, beraz, espazio fisiko berean – hondartzan – jarduera bera egiten duten operadore ekonomikoek ez dituztela hainbat eskakizun bete behar, eskaera urtaroen arabera handitzen delako soilik.

Ondorioen artean, azterlanak adierazten du okupaziorako gaikuntza-titulua emateko eskumena duten administrazioek publikotasun-,

inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak errespetatu beharko dituztela. Hala, zerbitzua emango duen operadorea parametro objektiboetan oinarrituta hautatu beharko da, ematen duten zerbitzuan eta okupatzen duten jabari publikoan eragin positiboa izan dezaten.

Udal-erregulazioa aztertuta, oro har ez zen lehia-arazorik ikusi hondartzen erabilerari eta aprobetxamenduari buruzko ordenantzetan. Hala ere, beste arau-tresna batzuek – hala nola hondartzetako kirol-jardueren erregulazioek edo sasoiko zerbitzuak ustiatzeko deialdiek – lehiaren zuzenbidea errespetatzen ez duten praktikak barne hartzen dituzte. Horietako askotan, udalerriko edo inguruko eragile ekonomikoei arrazoirik gabeko tratu onuragarria emateko irizpideak jasotzen ziren – lurralde-sustraitzearen irizpideak –. Beste batzuetan, beharrezkoak ez ziren irizpideak ezartzen ziren, eta, gainera, irizpide horiek operadoreak baztertzea ekar zezaketen.

Halaber, oinarri arautzaile batzuek operadore berari eman dakizkiokeen baimenen kopurua mugatzen zuten; muga hori ez zen justifikatzen lehia handiagoa sustatzean, baizik eta merkatuaren banaketan.

Surf-eskoletako begiraleei eskatzen zaien titulazioari dagokionez, desegokitzat jotzen dira erakunde jakin batek emandako titulu zehatz bat izatea eskatzen

zuten oinarriak, bai eta begiraleari titulaziorik ez izatea ahalbidetzen ziotenak ere, nahikoa baitzen titulua lortzeko ikastaroetan izena emanda egoteagatik edo parte hartzeagatik.

Baimenen iraupenari dagokionez, aztertutako kasu gehienetan gehieneko iraupenarekin – lau urte – ematen ziren, eta horrek esan nahi du aldi horretan merkaturia itxita egongo dela operadore berriak sartzen direnean. Nolanahi ere, ez da kontuan hartu behar gehieneko iraupena ezin hobea denik. Iraupena egokia izan beharko litzateke, eta ahaleginak egin beharko lirateke emate-prozeduren artean igarotzen den denbora ahalik eta txikiena izan dadin, aldi-aldian eta behin eta berriz konkurrentzia egon dadin.

Azterlanaren amaieran, gomendio hauek ematen dira:

- » Hondartzen erabilerak planifikatzea, araugintza-ekimena baliatzean.
- » Baimena emateko prozeduretan lehia bermatzea.
- » Lokalak edukitzea eskatzen bada, betearazteko baldintza gisa.
- » Baimenak eraginkortasunez kudeatzea: denbora eta espazioa.
- » Baimenen zaintza eta kontrola indartzea.

5.2. Kalteak eta eskumena: Herri-administrazioan izandako kalteen erreklamazio judizialaren ordezkotza bideak edo bide osagarriak (LEA/AVC 787-SUST 2025)

Kontratazio publikoko prozeduretan eskumenik ez izateak gailurak dakarkie administrazio publikoei. Hala, legez kontrako zerbait detektatzeak erreakzio bat merezi du, bai kontratazio publikoaren prozeduratik bertatik, bai administrazio kontratatzaileari eragindako kalte ekonomikoa erreklamatu, eta horrek erreakzionatu egin beharko

